

Kopi - → AKRATOTZAR  
ZDAZCAROTZ

Beheko mozioa 2018ko urriaren 30eko osoko bilkuran urgentziaz eztabaidatzea eskatzen da.

**TOLOSAKO UDALA**

**2018 URR. 30**

### **Monarkiarik ez dugu nahi**

**SARRERA - ERREGISTROA**  
ZKA. .... 8358

Joan den urriaren 11an Kataluniako parlamentuak ebazpen bat onartu zuen non, besteak beste, Felipe VI. Borboikoak Kataluniako gatazka politikoan jokatu duen papera gaitzesten zen, balio errepublikanoen aldarria egiten zen eta monarkia abolitzea eskatzen zen. Urriaren 25ean Bartzelonako udalak bat egin zuen Parlamentuak onartutako ebazpenarekin mozio baten bidez.

Espainiako gobernuaren kontrako erreakzio gogorra izan du. Gobernuak adierazi du Parlamentuaren ebazpena Auzitegi Konstituzionalean salatuko duela, nahiz eta Estatu Kontseiluak horren kontrako iritzia eman duen.

Hori guztia aintzat hartuta, demokrazia eta iritzi-askatasunaren printzipioa aldarrikatuz, Tolosako udalak elkartasuna adierazi nahi dio Kataluniako Parlamentuari bere eginez hark onartutako ebazpena.

Tolosako udalak:

1- Dei egiten die Estatuko erakunde guztiei berma dezatela elkarbizitza, kohesio soziala eta Estatutako pluraltasunaren adierazpen librea. Zentzu horretan gaitzetsi egiten ditu herritarren kontrako ekintza errepresiboak eta kondenatu egiten ditu egiten den mehatxua 155. artikulua aplikatzekoa, alderdi politiko katalanak legez kanpo uztekoa, politika epaitegien bidez egitea eta oinarrizko eskubideen kontra aplikatutako biolentzia.

2- Kataluniako erakundeei eta alderdiei dei egiten die elkarrizketara, adostasunera eta katalan herritar guztien aukera-pluraltasuna errespetatzera.

3- Errege Felipe VI.ak Kataluniako gatazkan izan duen parte hartzea eta urriaren 1ean gorputz polizialen biolentzia justifikatzea gaitzesten eta kondenatzen ditu.

4- Balio errepublikanoekin duen konpromisoa berresten du eta monarkiaren gisako erakunde zaharkitu eta antidemokratikoa abolitzearen aldeko apustua egiten du.

5- Gaitzetsi egiten du Espainiako gobernuak adierazpen-askatasunari eginiko erasoak Kataluniako Parlamentuaren ebazpena Epaitegi Konstituzionalean salatzean.

6- Erabaki honen berri Kataluniako Parlamentuko presidenteari eta Estatuak EAEn duen ordezkariari emango zaie.

Tolosan, 2018ko urriaren 30ean

